

ORRIALDEA: 1.a, 3tik
DATA: 2018/07/26
BERRIKUSTEA: 0

**JAKINARAZPENA EUSKALDUNA
JAUREGIAREN ENPRESA
HORNITZAILEEI. EBALUAZIO-
IRIZPIDEAK**



EUSKALDUNA JAUREGIAREN Kalitatea Kudeatzeko Sistema ISO 9001:2015 Arauaren bertsio berrira egokitu ondoren, honakoa jakinarazten dizuegu, kontuan hartu eta baloratu dezazuen.

EUSKALDUNA JAUREGIAREN enpresa hornitzaile guztiak irizpide hauen arabera ebaluatzen dira:

1.- Txikiak ez diren kontratuak

Txikia ez den kontratu baten ondorioz eta, beraz, lizitazio publikoko prozesu batean oinarrituz EUSKALDUNAREKIN harremana duten enpresa hornitzaileak lizitazioa dela-eta argitaratzen diren eta kontratua osatzen duten baldintza-orrietan adierazitako baldintzak eta ezaugarriak kontuan hartuz ebaluatuko dira.

Halaber, lizitazio-prozesuko enpresa esleipendunak egiten duen eskaintzaren arabera ebaluatuko dira.

2.- Kontratu txikiak

Kontratu txiki baten ondorioz EUSKALDUNAREKIN harremana duten Euskaldunaren enpresa hornitzaileak honakoak kontuan hartuz ebaluatuko dira:

- Prezioa
- Epea eta gaitasuna
- Kalitatea

Halaber, betebeharrak hauek bete beharko dira:

Araudia betetzea.- Ingurumen, gizarte eta lan arloan eta gizonaren eta emakumearen arteko berdintasunaren arloan aplikagarria den araudiaren arabera egingo da eskaintza, eta kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten langileei aplikatu dakizkiekeen lan-eskubideak bermatuko dira. Aipatutako araudia Europar Batasuneko Zuzenbidean, Estatuko Zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatua lotesten duten ingurumen, gizarte eta lan arloko nazioarteko Zuzenbidearen xedapenetan ezarrita dago.

Kontratistak konpromisoa hartzen du ekoizpen-kate osoan zehar oinarritzko lan-eskubideak errespetatzeko eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko arauak betetzeko, bereziki honakoak:

29. eta 105. arauak, bortxazko lanak desagerrarazteari buruzkoak.

ORRIALDEA: 1.a, 3tik
DATA: 2018/07/26
BERRIKUSTEA: 0

**JAKINARAZPENA EUSKALDUNA
JAUREGIAREN ENPRESA
HORNITZAILEEI. EBALUAZIO-
IRIZPIDEAK**



87. eta 98. arauak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.

100. araua, balio bereko lanagatik gizonen eta emakumeen eskulana berdinduz buruzkoa.

111. araua, lana lortzerakoan eta lan baldintzetan arraza, kolore, sexu, erlijio, irizki politiko, nazionalitate eta jatorri sozialagatiko diskriminazioaren aurkakoa.

138. araua, haurren esplotazioa eta haurren lana deuseztatzeari buruzkoa.

182. araua, haurren lan modurik okerrenak debekatzeari eta horiek berehala ezabatzeari buruzkoa.

Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko legeko betebeharra.- Kontratuaren esleipendun gertatuz gero eta kontratuak iraun bitartean, enpresan 50 langile edo gehiago badaude, gutxienez plantilla guztiaren %2 desgaitasuna duten langileak izango dira. Hori guztia, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 42. artikularekin bat etorritik. Horrela ez bada, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan zehazten diren ordezko neurriak hartuko dira. Era berean, kontratuaren arduradunaren aurrean aipatutako betebeharrak bete direla egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, honek hala eskatzen duenean, kontratuaren indarraldiaren edozein unetan edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

Emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzeko legeko betebeharra.- Enpresa hornitzaileak Berdintasun Plan bat duela egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, baldin eta legez (250 langile baino gehiago) edo hitzarmenak aginduta horrelakorik izan behar badu. Kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatuko du hori, honek hala eskatzen duenean, kontratuaren indarraldiaren edozein unetan edo, edonola ere, azken faktura bidali aurretik.

Hitzarmen kolektiboa eta soldata.-

Enpresa hornitzaileak dagokien hitzarmen kolektiboa aplikatuko die kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei. Halaber, aplikagarria den hitzarmen kolektibo sektorialean adierazitako soldata ordainduko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere izango hura baino txikiagoa. Kontratuaren arduradunari emango dio informazioa, honek hala eskatzen dionean.

Haren jarduerari aplikagarria izanez gero:

ORRIALDEA: 1.a, 3tik
DATA: 2018/07/26
BERRIKUSTEA: 0

**JAKINARAZPENA EUSKALDUNA
JAUREGIAREN ENPRESA
HORNITZAILEEI. EBALUAZIO-
IRIZPIDEAK**



- Ingurumen-jarduera, ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatu bat izatetik edo ingurumen-gorabeherak atzematetik abiatuta.
- Jarduera laneko segurtasun eta osasun arloan, laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema ziurtatu bat izatetik edo segurtasun-gorabeherak atzematetik abiatuta.